



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Joserra Senperenak eta Maite Arruabarrenak poesiaren edertasuna eta pianoaren dotorezia batzen dituzte Arriaga Antzokian eskainiko duten errezitalean

- Emanaldia datorren asteazkenean izango da, maiatzaren 21ean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.

Bilbo, 2025eko maiatzaren 16a.- Begirada guztiak San Mamesen jarrita badaude ere, mundua ez da geldituko asteazkenean futboleko Europa Leaguearen finalarekin; izan ere, Arriaga Antzokiak plan alternatibo bat eskaintzen du (baita osagarria ere, nahi izanez gero). Hilaren 21eko 19:30etik aurrera, Arriagako foyerrean kontzertu oso berezi bat izango dugu, **Joserra Senperena** pianistaren eta **Maite Arruabarrena** mezzosopranoaren eskutik. Elkarrekin, *Lied Koaderno*a izeneko errezital bat eskainiko dute.

Senperenak eskarmentu luzea du musikagile gisa eta bere lanetan bluesa, jazz, soinu bandak edo ganbera musika landu ditu. Baina, horrez gain, bere katalogoan abestiei ere lekua eman die: eskuarki berak konposatzen du musika, prozesuaren hasieran, eta horrek mugatu egiten die, nolabait, espazioa harekin elkarlanean aritzen diren egile eta abesti idazleei, hala nola Harkaitz Cano, Diego Vasallo edo Idoia Asurmendiri.

Arriaga Antzokian "lurra hartuko" duen proiektuak *Lied Koaderno*a du izenburu eta Senperenak alderantzizko bideari ekiteko asmoa izan zuen abiapuntu, hau da, hitzak izatea musika konposatzeko abiapuntua. Beste era batera esanda, *Lied Koaderno*a Joserra Senperenak abestiak poesiatik idazteko zuen behar berezitik sortu zen. Eta Lieda, genero gisa, beti egon izan da Senperenaren radarrean, piano klasikoko ikasketak hasi zituenetik, baita, adibidez, Imanol Larzabalekin egin zituen kolaborazioen ondorengo hurbilketa musikalean ere. Geroago, Sorozabalen eraginak konpositorea "Lied estiloan" konposatzen saiatzera animatu zuen. Hala, azken urteotan inspirazio iturri izan ditu hainbat euskal egileren poema eta testuak, besteak beste, Mari Luz Esteban, Juan Luis Zabala, Leire Bilbao, Itziar Ugarte Irizar, Josu Goikoetxea, Goizalde Landabaso edo Jon Gerediagarenak; 60 abesti inguru konposatu ditu guztira. Baina abestuko zuen ahotsa falta zuen eta hor sartzen da Maite Arruabarrena. Mezzosopranoa eta pianista entseguetan murgildu ziren abestiak haren ahots, tonu, erregistro eta abarretara egokitzeko.

Maite Arruabarrenaren interpretazioak eta konpositoreak berak pianoa jotzeak gaurkotu egiten du Lied generoa, eta balio handiagoa ematen dio. Duoak Schubert eta Schumann erromantikoen obretan jarri du arreta, baita XX. mendeko euskal konpositore handiengan ere, hala nola Pablo Sorozabalengan eta Aita

Donostiarengan, gaur egungo musika bistatik galdu gabe. Arriaga Antzokiko foyerreko giro intimo eta goxoan kontzertu hain berezi honetaz gozatzeko aukera ederra izango dugu, beraz.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 16 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus